



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

ALDUNDIAK EZ DAU “KONPENTSAZINORIK” SARTZERIK PLANEETAN ERRENTAREN KANPAINAN SORTUTAKO ARAZO ETA GASTUENGAITIK

- José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusien kontrolerako osoko bilkuran Talde Berezia-PPB taldeari erantzun deutsonez, Foru Gobernuak ez dau horren inguruko zerga-aldaketarik proponiduko, ez dalako “beharrezkoa”, eta alderdi hori gaia Batzarretan planteetara animau dau, eztabaidatzeko.
- Atzo arte, “377.747” aitorpen egin dira eta 252,7 milioi euro itzuli jakez “237.265” zergaduni.
- Amaya Fernandez bozeroale popularrak azpimarratu dauenez, oraindino badago denporea aurrez aurreko arreta “orokorra” ezarteko.

(Gernikan, 2021eko maiatzaren 26an). Gernikako Batzar Etxeak kontroleko bilkurea jaso dau gaur, eta Foru Gobernua hamar bider igon da atrilera, oposizinoaren 4 itauni eta ahozko 6 erantzun-eskeri erantzuteko. Horreetako batean, Jose Maria Iruarrizaga Ogasun eta Finantza diputatuak 2020ko Errenta kanpainaren gaineko datu eguneratuak emon ditu, eta ukatu egin dau bizkaitarrak konpentsetako zerga aldaketa bat planteetako interesa. “Ez da beharrezkoa. Beharrezkoa dala uste badozu, proponidu aldaketa hori Batzarrei”, erantzun deutso gai horren inguruan eta Ogasunak aurrez aurreko arreta hobetzeko planteauko dituan neurrien ganean galdetu deutson Amaya Fernandez Talde Berezia-PPB taldeko bozeroaleari.

Foru diputatua “datuakaz” defendidu da errenta kanpainen sortutako arazoak dirala eta oposizinoak egindako kritiketatik. Iruarrizagak baieztu dauenez, “atzora arte” 377.747 aitorpen egin dira (% 86 web bidez; % 11,17 telefonoz; % 3 app bidez; eta % 0,07 bulegoan) eta “332.291” telefono-dei artatu dira; egunero jasoten diran “8.000” dei baino gehiagoren “% 95ari” erantzunez. Diputatuak ziurtatu dau sistemak erantzun bakotzat jo dituan “38.500” dei horreetatik “23.800ri” bertatik egindako deiakaz erantzun jakela.

Aurrez aurreko arretari jagokonez, atzora arte “3.113” persona artatu dira foru-bulegoren batean, “68” egunean. 63 personak beteten dabe zerbitzu hori. Kanpaina honetan 930 kexa jaso dira eta daborduko 252,7 milioi euro itzuli



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

jakez 237.265 zergaduni. Iruarrizagak gogorarazo dau Ogasunak “behar izan daberen persona guztiei” emon deutsela arreteta foru bulegoetan.

Zifra horreekaz, errenta sistemak “funtzionetan” dauela azaldu gura izan dau diputatuak Batzarretan, eta “geratzeko etorri dala”, oposizinoak “handitu” dituan “gorabeherak” gorabehera. “Kalifikatiboen ganeko eztabaidan” sartzeari uko egin deutso, eta Talde Bereziaren itaunean zentrauta, bere sailak zergadunei gestinoak errazteko neurriak hartu ebazala esan dau, aurkezpen-kanal “nahikoak” erabilita, “persona gehiagori arreteta emoteko” telefono bidezko arreta-sistema bategaz eta kanpaina “86 egunera” arte luzatuz. “Eskariaren araberrako” aurrez aurreko arreteta eskatzea eta pandemia baten erdian gagozala kontuan ez hartzea kritikau dau.

“Ziurgabetasuna, mesfidantzea, nahigabea edo hondamendia” moduko berbakaz errenta proiektua gogor kritikau ostean, Amaya Fernandez PPBren bozeroaleak, foru gobernuaren “arrabolea” kritikau dau, oposizinoaren proposamenak “blokeau” ditualako, errenta aurkezteko epea luzatzea eta aurrez aurreko arreta “orokorra” ezartea, besteak beste. Kanpainak “kalteak” eragin deutsez herritarrei, “aholkulariei egindako ordainketengaitik” eta “buruhausteengaitik”, eta, hori dala eta, Aldundiak gastu horreengaitik “konpentsazinarik” planteauko ete dauen galdetu dau.

GOBERNANTZA ETA GARDENTASUNA

Beste alde batetik, EH Bilduk gobernantza ereduaren inguruan egindako itaun bati erantzunez, Unai Rementeria ahaldun nagusiak koalizino abertzaleak pandemia garaian izan dauen jarrerea kritikau dau, “desagertu” egin dalako. “Ez zarie egon. Ezabatu egin zarie. Ez dozue une gatxetan bat egin”, esan deutso Bea Ilardia koalizino abertzaleko bozeroaleari. Azken horrek “eskua luzatu” deutso Aldundiari gobernantza eredian laguntzeko eta sakontzeko, Galdakaoko Udalean bere alderdia gauzatzen ari dana adibide moduan jarrita. Bere taldea desagertu izana ukatu dau, “barriro be alde batera itzi gaituzue”.

Elkarrekin Bizkaiak kritikakaz bat egin dau, Foru Aldundiak Batzarretako taldeei informazinoa emoteko daukan betebeharraren inguruan egindako beste itaun batean. Bozeroalearen berbetan, Aldundia kontrol lan hori “oztopatzen” ari da eta ez ditu taldearen eskakizunak beteten. Eneritz de Madariagaren esanetan, dokumentazino eskaeren (68) edo idatzizko galderen (77) “% 44” ez dira erantzuten edo epez kanpo erantzuten dira. Gizarte Ekintza, Ekonomiaren Sustapen, Administrazino Publiko eta Kultura sailletako datuak “oso-oso txarrak” dirala esan dau, “% 70 eta % 80 arteko” ehunekoak hartzen dituelako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Aldundiarentzat, barriz, Gobernu honen konpromisoa “benetakoa da eta Batzar Nagusi honeetara zabaltzen da”, Elixabete Etxanobe foru diputatuak esan dauenez. “Kudeaketea eta taldeei erantzuteko betebeharra uztartzea ez da beti erraza, eta gitxiago pandemia garaian”. “Epe barruan erantzuten saiatzen gara, eta Aldundiak zorrotz beteten dau onartutako gardentasun-araudia”. Nazinoarteko gardentasun rankingetan “lehen postuetan gagoz”. Legealdi honetan, Foru Gobernuak “1.310” kontrol ekimenei erantzun deutse, eta aurreko legealdian “4.946ri”, “aurretik ikusi ez ziran kopuruak”, esan dau Etxanobek.

Beste alde batetik, Talde Berezia-PPBk kritikau egin dau pandemiaren garaian legeak egiteko foru-dekretu arauemoilea “larregi” erabili izana (2019an 2 onartu ziran, eta 2020an, barriz, “dozena batetik gora”), eta planteau dau Bizkaiko Batzarretara iristen diran araugintza-prozedura “guztiek” izan behar dabela legezkotasunaren inguruko derrigorrezko txosten bat. Aldundiaren berbetan, funtzionario publiko kualifikatuek “bermatzen dabe gai hori”.

Gardentasunaren gaiak bere horretan jarraitu dau, EH Bilduren ahozko erantzun-eske baten bidez, CNMCK kontratazino publikoan aurkitutako “kartel biren” kontrako azkenengo epaiari erreferentzia eginez. Arantza Urkaregik galdetu dau ea Aldundia behin betiko epaiaren zain egongo dan Deloitte edo PwC moduko enpresei lehiatzea debekatzeko, Lehiaren Euskal Agintaritzak abiautako prozeduran murgilduta dagozala, eta foru erakundeagaz kontratuak sinatuta daukiezala kontuan hartuta. Elixabete Etxanobe Administrazio Publikoko eta Erakunde Harremanetarako diputatuak adierazo dauenez, Aldundiak legea errespetauko dau, eta “oraindino” ezin dabe “eragotzi” enpresa horreek lehiaketetan parte hartzea, ez daukielako “debekurik” kontratazino publikoan. Aldundian lehia areagotzeko edegi dan prozedurari “lehentasuna” emoten jako, eta kontratazino zentralizauaren aldeko apustua egiten da, batez be 2016tik, iruzurrezko praktika horreek Bizkaian emon ez daitezana.

GUFE ETA OSASUN PLANA

Beste alde batetik, EH Bildu arduratuta agertu da Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen egoereagaz, “pribatizazino estrategia argia” eta “enpleo galerea” pairatzen ari dalako. Halanda be, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako diputatuak azaldu dauenez, erakunde horrek 881 behargin ditu eta “100 plaza barri” sortu ditu ezinduentzako egoitzetan. Izaskun Duquek kritikau egin dau GUFEn sare pribaduaren “osagarri” bihurtu izana, eta gaur egun kudeaketa publikoa daukien adinekoen hiru egoitza baino ez egotea, “eta bitan geratuko dira”, EH bilduko ordezkariak ohartarazo dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Osoko bilkuraren azken fasean, Foru Gobernuak oposizinoaren gai honeen inguruko beste galdera batzuei erantzun deutse: industria-ondarearen aprobetxamendua, garraio publikoaren segurtasuna bermatzeko segurtasun-eta babes-sistemak, Petronor enpresaren ekoizpen-ereduaren aldaketaren aurrean emon beharreko pausuak eta defizita erabiliz inbertitzeko erespideak. Azken gai horri jagokonez, ahaldun nagusiak iragarri dau bere Gobernuak “laster” aurkeztuko dauela gizarte-zerbitzuei buelta emon gura deutesen “Osasun eta Gizarte Plana”, EtxeTIC eredu monitorizatuz, egoitza-eredua bizikidetzatunidade txiki bihurtuz eta prestakuntzea hobetuz.



NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN DESCARTA INCORPORAR “COMPENSACIONES” POR LOS PROBLEMAS Y GASTOS GENERADOS EN LA CAMPAÑA DE LA RENTA

- El diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, responde al grupo Mixto-PPB, en un pleno de control de las Juntas Generales de Bizkaia, que el Ejecutivo foral no propondrá ninguna modificación tributaria en este sentido, por no verla “necesaria”, y anima a la formación popular a plantearla en la Cámara para su debate.
- Hasta ayer, se han hecho ya “377.747” declaraciones y se han devuelto “252,7” millones de euros a “237.265” contribuyentes.
- La portavoz popular Amaya Fernández hace hincapié en que todavía hay tiempo para implantar una atención presencial “generalizada”.

(Gernika, a 26 de mayo de 2021). La Casa de Juntas de Gernika ha acogido hoy un pleno de control en el que el Gobierno foral ha subido al atril en diez ocasiones para responder a 4 interpelaciones y 6 preguntas orales de la oposición. En una de ellas, el diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga ha ofrecido datos actualizados de la campaña de la Renta 2020 y ha rechazado el interés de plantear una modificación tributaria para compensar a vizcaínos y vizcaínas por los problemas generados en la actual campaña. “No es necesaria. Si usted cree que es necesaria puede proponer esta modificación a la Cámara”, le ha respondido a la portavoz del grupo Mixto-PPB, Amaya Fernández, quien le ha interpelado sobre esta cuestión y sobre las medidas que Hacienda va a plantear para mejorar la atención presencial.

El diputado foral se ha vuelto a defender “con datos” a las críticas de la oposición por los problemas generados durante la campaña de la renta. Iruarrizaga ha confirmado que “hasta ayer” se habían hecho “377.747” declaraciones (el 86% vía web; 11,17% por teléfono; el 3% por app; y un 0,07% de forma presencial) y se han atendido “332.291” llamadas telefónicas, con una respuesta que en la actualidad alcanza el “95%” de las más de “8.000” diarias. El diputado ha asegurado que ya se han realizado “23.800” llamadas salientes de las “38.500” que el sistema había detectado como no atendidas.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En cuanto a la atención presencial, el cómputo hasta ayer era de “3.113” personas atendidas en alguna oficina foral, “68” al día, servicio que es cubierto por 63 personas. Las quejas recibidas en esta campaña se elevan a “930” y se han devuelto ya “252,7” millones de euros a “237.265” contribuyentes. Iruarrizaga ha insistido en que Hacienda ha atendido en las oficinas forales “a todas las personas que lo han necesitado”.

Con este balance, el diputado ha querido trasladar a la Cámara que el sistema de renta “funciona” y “ha venido para quedarse” pese a las “incidencias” que cree han sido “magnificadas” por la oposición. Se ha negado a “entrar en una discusión sobre calificativos”, y centrándose en la interpelación del grupo Mixto, ha mantenido que su departamento ya había tomado medidas para facilitar las gestiones a los contribuyentes, con “suficientes” canales de presentación, un sistema de atención telefónica “para atender a más personas” y la ampliación hasta los “86 días” de la campaña. Ha criticado que se pida atención presencial “a demanda” y que no se tenga en cuenta de que nos encontramos en medio de una pandemia.

Tras volver a criticar duramente el proyecto de renta con palabras como “incertidumbre, desconfianza, zozobra o desastre”, la portavoz del grupo Mixto-PPB, Amaya Fernández, ha criticado, por su parte, el “rodillo” del gobierno foral por “bloquear” las propuestas de la oposición entre las que ha recordado que se incluyen la ampliación del plazo de presentación de la renta y la implantación de una atención presencial “generalizada”. La campaña ha supuesto “perjuicios” a la ciudadanía por el “pago a asesores” y por los “quebraderos de cabeza”, y es, por ello, que la representante popular ha preguntado si la Diputación iba a plantear “compensaciones” por estos gastos generados.

GOBERNANZA Y TRANSPARENCIA

Por otro lado, en respuesta a una interpelación de EH Bildu por el modelo de gobernanza, el diputado general, Unai Rementeria, ha criticado la postura de la coalición abertzale durante la pandemia por “desaparecer”. “No han estado. Ustedes se han borrado. No han sumado en momentos difíciles”, le ha espetado a la portavoz de la coalición abertzale, Bea Ildia, quien “ha tendido la mano” a la Diputación para colaborar y profundizar en el modelo de gobernanza, poniendo como ejemplo el que su formación está desarrollando en el ayuntamiento de Galdakao. Ha negado que su grupo haya desaparecido, más bien “nos habéis vuelto a obviar”.

Elkarrekin Bizkaia se ha sumado también a las críticas en otra interpelación sobre el cumplimiento del deber informativo de la Diputación a los grupos



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

junteros. Según su portavoz, la Diputación está “obstaculizando” esta labor de control y “no cumple” a los requerimientos de este grupo. Eneritz de Madariaga ha asegurado que el “44%” de las solicitudes de documentación (de un total de 68) o preguntas por escrito (77), no se han respondido aún o se responden fuera de plazo. Son “sangrantes” los datos en los departamentos de Acción Social, Promoción Económica, Administración Pública y Cultura, ha citado, que alcanzan porcentajes de “entre el 70 y el 80%”.

Para el Ejecutivo foral, sin embargo, el compromiso de este Gobierno es “real y se extiende a estas Juntas Generales”, según ha mantenido la diputada foral Elixabete Etxanobe. “Conjugar la gestión con la obligación de responder a los grupos, no es siempre sencillo y menos en tiempo de pandemia”. “Se intenta responder en plazo y la Diputación cumple estrictamente la normativa de transparencia aprobada”. En los rankings de transparencia internacionales “estamos en los primeros puestos”, ha recordado. Durante esta legislatura, el Gobierno foral ha atendido “1.310” iniciativas de control y “4.946” en la pasada, “magnitudes que no se habían visto antes”, ha explicado Etxanobe

Por su parte el grupo Mixto PPB ha criticado el “abuso” durante la pandemia de la figura del decreto foral normativo para legislar. En 2019 se aprobaron 2 y en 2020 “se superó la docena” de normas aprobadas con esta figura de urgencia. Y ha planteado que “todos” los procedimientos normativos que lleguen a la Cámara vizcaína cuenten con un informe preceptivo de legalidad. Este asunto “está garantizado”, según la Diputación, “por funcionarios públicos cualificados”.

El asunto de la transparencia ha seguido coleando en el pleno por medio de una pregunta oral de EH Bildu que hacía referencia al último dictamen contra los “dos cárteles” descubiertos por la CNMC en Euskadi. Arantza Urkaregi ha preguntado si la Diputación “va a esperar” a la sentencia definitiva para prohibir concursar a empresas como Deloitte o PwC, inmersas en el procedimiento que inició la Autoridad Vasca de la Competencia, consultoras que tienen contratos firmados con la institución foral.

La diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe ha asegurado que la Diputación respetará la ley y que “de momento” no pueden “impedir” que dichas empresas participen en concursos, ya que “no están sujetas a prohibición” en la contratación pública. En la Diputación se “prioriza” el procedimiento abierto para aumentar la concurrencia, y se apuesta por la contratación centralizada, especialmente desde el año 2016, para que estas prácticas fraudulentas no se produzcan en Bizkaia.

IFAS Y PLAN DE SALUD



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por otro lado, EH Bildu ha mostrado su preocupación por el estado del Instituto Foral de Asistencia Social que sufre un “clara estrategia de privatización” y de “pérdida de empleo”. Sin embargo, el diputado de Acción Social, Sergio Murillo, ha aclarado que este organismo mantiene estable su plantilla en “881” trabajadores y ha generado “100 plazas nuevas” en residencias para personas discapacitadas. Izaskun Duque ha criticado que el IFAS se haya convertido en un “complemento” a la red privada, y que actualmente solo existan tres residencias de mayores con gestión pública, que “se quedarán en dos”, ha advertido la representante de EH Bildu.

En la última fase del pleno, el Gobierno foral ha respondido a otras cuestiones de la oposición sobre el aprovechamiento del patrimonio industrial, los sistemas de seguridad y protección para garantizar la seguridad en el transporte público, los pasos a dar ante el cambio de modelo productivo de la empresa Petronor y los criterios para invertir empleando el déficit. En esta última cuestión, el diputado general ha anunciado que “en breve” su Gobierno presentará el “Plan de Salud y Sociedad” que pretende dar un giro a los servicios sociales mediante la monitorización del modelo EtxeTIC, la transformación del modelo residencial en unidades pequeñas de convivencia y la mejora de la formación.